

Martxoak 8 Amasa-Villabonan : argazki bat, ondorio batzuk

Zerk neurtzen du deialdi baten arrakasta? Kasu honetan, nola neurtzen da 2018ko emakumeen egunerako deitutako lanuztearen arrakasta? Eta beronen eragina? Deialdian parte hartu dugun emakumeen kopurua izan daiteke arrakastaren adierazle bat, eta ez da makala gure begiekin ikusi ahal izan dugunaren arabera. Hainbat egunkarik jaso duten moduan Euskal Herrian 200.000 emakume baino gehiagok parte hartu genuen M8ko manifestazioetan, greba feministaren egunean.

Deialdiaren zergatien lorpen maila izan daiteke beste aldagai bat, arrakasta neurtzerako garaian. Eta hau, epe motzean jakitea zaila izango da. Deialdiari emandako erantzunak eraginik izan duen edo ez, aldarrikapenek etorkizunean izango duten lorpen mailaren arabera egongo da. Greba deialdi honen izaera transbertsala azpimarragarria da, izan ere, klasearteko eta belaunaldi-arteko osaketa izan da ezaugarri nagusienetako bat. Zer beste ekimenek lortu du halako herritar ezberdinak lema berdina oihukatuz jartzea? Gutxi. Begirada konplizeek, aliantzak sortu dituzte, aurrerantzean izan gaitezen gai tentsio horri eusteko. Deialdiaren aniztasuna, horra hor arrakastaren beste adierazle bat.

Lan merkatutik at dauden lanak aintzat hartu dituen greba deialdi bat izan da hau, zaintza lanak, lan erreproduktiboak erdigunean jarri dituenak. Eta izan dira eztabaidak, gune pribatuetan zein publikoetan. Aurkako eta aldeko posizioak gogor defendatu dira. Guk geuk, tinko eutsi diogu greba deitzearen zergatien zerrenda mikatzaren defentsari etxean, lantokian, tabernan, elkarteetan edo herriko plazan. Eta genituenak baino, argudio gehiago jaso ditugu inguruko kideengandik. Planto egiteko arrazoiak sobera ditugula barneratu dugu, eta erakutsi dugu. Euren burua feministatzat hartzen ez zuten emakume andana jarri du aurtengo martxoaren 8ak egindako lan produktibo, erreproduktibo zein zaintza lanaz hausnartzen. Hausnartzea, desikastea eta ikastea. Aldaketarako bidea zabaltzen duen oinatza, arrakastaren adierazle garbiena dugu.

Ezbairik gabe, posizioak aldatzeko moduko dardara sortu du deialdi honek bai Euskal Herri mailan, bai Amasa-Villabonan ere. Posizioak aldatzea diogu, aurrez grebaren zilegitasuna ezbaian jarri eta kritikatu duten hainbat ikusi ditugulako mugimendu feministaren deialdiarekin bat egiten. Tartean, eskubikoa den alderdi baten interesak defendatzen dituen

zenbait ordezkari ere. Luze hitz egin genezake eskubiak emakumeekin eta gure eskubideekin izan duen jarreraz, abortua, kasu. Baina hau ez da artikulu honen egitekoa.

2018ko martxoaren 8a, mugarri izango da aurrerantzean edo hala izatea dagokigu behintzat. Emakumeok, subjektu politiko gisa, gure gizartearen eraldaketa sozialean eragin zuzena dugun agente aktibo gisa agertu gara, modu masiboan. Emakumeok, izan indibidualki edo kolektiboki, injustizien eta patriarkatuaren aurka altxa garen bakoitzean nor bagarela erakutsi dugu. Feminismoa mugimendu anitza da. Eta feminismoa ulertzeko modu asko daude. Hasi berdintasuna aldarrikatetik eta ezberdinak garelako aldarrikatu arte tartea oso zabala da. Eta feminismoa praktika pluralen gainean eraikitzen den identitate kolektiboa dela erakutsi digu igaro berri den martxoaren 8ak.

Gizarte mugimendu zapaldu gisa, feminismoak ilustrazio garaiaz geroztik borrokatu ditu emakumeon askatasuna, berdintasuna, eskubide politikoak, hezkuntzarako eta jabetza pribaturako eskubideak, nahiz kargu publikoak betetzeko eskubidea. Hamaika borroka eginak dira mundu osoko emakumeak protagonista direla. Eskaera politikoak ozen aldarrikatu dira oraingo honetan ere. Eskaera horiek, ekinbide politiko bilakatzea da helburua eta eginbeharra orain, baita Amasa-Villabonan ere.

Pertsonala politikoa dela feminismoaren lema izarra izan da. Angela Davis aktibista eta irakaslea, feminista izatea, emakumea gizakia dela defendatzea dela aldarrikatu du sarri. Feminismoak errealitatea errotik gauzak aldatzeko gai dela erakutsi digu, beste behin.

Baina ez gaitezen engainatu, femerinoia izatea ez da zertan feminista izatearen sinonimoa; alkatea emakumea izatea, politika feministak garatzearen sinonimo ez den bezala. Nawal al Saadawik idazlea garbi adierazten du hau, feminista izateko ez da nahikoa emakume izatea, izan baitzaitezke kapitalista, patriarkala eta erlijiosoa. Emakumeon presentzia politika arloan, ez da aldaketarako bermea, ikusi besterik ez baitago, politika heteropatriarkalak eta neoliberalak praktikan jartzean.

Honela bakarrik ulertu daiteke Amasa-Villabonako alkateak, gu bezala emakumea izanik ere, aurtengo martxoaren 8az atera duen ondoriozik azpimarragarriena mugimendu feministak egin dituen margoketen kontua

izatea, eta pintaketak bandalismoarekin lotzea. Begi ezberdinez ikusi dugu lurrikara, argi dago. Eta orain zer egingo dugu, neskak?

*“Edozein adinetan matxinatzeko adorea duten emakumeak
dira bizitza sustatzen dutenak...,
matxinoak dira eskubideen mugak
hedatzen dituztenak, apurka apurka...,
gaizkiaren mugak estutu eta desagerrarazi egiten dituztenak”*
Natalie C. Barney

Sinatzen dute:

-